

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 30a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bera • Inguruko artisten lanen erakusketa zabalik Kultur Etxean.

Txantrea • Gaur hasiko dira Iruñeko auzo horretako jaiak.

Etxetik lan egiteko



erronka

Telekomunikazioa eta informatika uztartuz etxetik lan egitera ausartzen diren langileak gero eta gehiago dira Nafarroan. Ikerketek diotenez, heldu den mendean Europako Batasuneko biztanleen %15ek lan egingen dute etxetik edo telezentro batetik. Motel bada ere, Batasunaren joera hartu du herrialdeak. CEIN Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarrak eskatuta CIES enpresak egindako ikerketa baten arabera, 242 telelangile daude Nafarroan. Datuak oso zehatzak ez izan arren, lan merkatua aldatzen doan heinean gero eta nabariagoa den joera da telelanarena.

Atallu •

Umeak izango dira protagonista

Umeen Eguna izango da aurrerantzean lehengo Dantzari Eguna

Urteetan gertatu den moduan, hurrei eskainitako eguna izango da maiatzeko lehen igandea. Jolas eta ikuskizun ugari, Dantzari Egunari lekukoa hartu dion jai horretan.



Umeek beren eguna ospatuko dute etzi.
● ARTXIBOKOA

DUELA HAMAZAZPI URTE SOR-
tu zen Astunalde dantza taldea. Orduan, bailarako haur eta gaztetxo gehienak bildu ziren euskal dantzen itzalera. Lau urte eta hemezortzi bitarteko berrogeita bat neska-mutil hasi ziren dantzak ikasten. Fandango eta arin-arinarekin hasi, eta ez-pata-dantza, arku-dantza eta besteekin jarraitu zuten. Baina, inondik ere, dantza taldearen altxorrik preziatuenak bi dira: Beteluko ingurutxo eta karrika-dantza.

Bi dantzok galduta zeuden aspaldiko urteetan, eta Astunaldek berreskuratu zituen. Adineko jende ugari hunkitu egin zen herriko jaietan, berez inarrekoak diren bi dantza taularatzen zituztela ikusirik. Horregatik, Astunaldek bazkide kanpaina bati ekin zionean, askok eskaini zuten di-

dua, dantzarien gurasoez gain. Garai hobek ziren haiek. Oraindik jende horren laguntza badu taldeak, baina, halere, oinarrizkoena falta zaio: dantzariak.

Txaro Garate taldeko arduradunak dioenez, «hasierako dantzari haiek zahartu egin dira, eta beste zeregin eta kezka batzuk dituzte. Bestalde, bailaran ume gutxi dira, eta haiek ere eginbehar asko dituzte». Taldea hainbat tokitan ibilia da Euskal Herriko festaugaritan, eta Katalunian eta Valentzian ere bai. Larunbatero arratsaldean bildu eta dantzan aritzen ziren, eta

duela gutxi arte jarraitu dute larunbateroko bilera horiek, baina jendea urrituz joan da etengabe. Beti neskatilak gehiago izan dira mutikoak baino, baina taldea beti osatu izan da.

Egun, hamasei lagun biltzea kosta egiten zaie, ordea, eta jakina da dantza gehienetarako neska-mutil ez osatutako zortzi bikote behar izaten direla.

Dantzari faltan, ezin dantza taldea izaten jarraitu, eta badirudi aisialdi talde bihurtuko dela aurrerantzean. Araitz-Betelun, ordea, bada jadanik beste bat, Oihuka aisialdi tal-

dea, eta Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatzen du.

Astunaldek egindako guztien artean, Dantzari Eguna izan ohi zen ekitaldirik garrantzitsuenak, eta, horregatik, dantzariak ez izan arren, ez dituzte jairik gabe utzi nahi hurrak. Aurrerantzean, ordea, Umeen Eguna izango da festaren izena. Urte bakoitzean herri batean ospatuko da, eta aurten Atallun egingen da. Herri bazkaria izango da, enparantzan eguraldi ona izanez gero. Arratsaldean, herri kirolen erakustaldia izango da.

→ Urko Aristi

Burgi

Almadiaren Eguna etzi

ETZI ALMADIAREN EGUNA ospatuko da Burgi herrian, Erronkariko ibarrean. Erronkariko basozale askoren lanbidea izan zen egurra basoan moztu ondoren Ezka ibaian barna garraiatzea Espainiako hainbat herrietara. Baina denboraren poderioz garraio moduak aldatu egin ziren, eta, horrezaz gain, Esa urtegia eraiki zuten eta Ezka ibaiaren bide naturala oztopatu.

Hortaz, orduan lanbidea zena orain urtean behingo ikuskizun bilakatu da. Eguneko ekitaldiak 10:30etan hasiko dira. Ordu horretan, Ezka ibaiko Olegia tokian almadiak ureratuko dira eta ordu erdi geroago abiatuko dira ibaitik behera almadiazainak. Aurtengo udaberrian euria franko egin du, eta Ezkak nahikoa ur eramane du almadiak bizi-bizi garraiatzeko.

12:30etan iritsiko dira Burgiko uharkara. Dena dela, almadien ikuskizuna ez da eguneko ekitaldi bakarra izanen. Ordu batean, Erronkariko aurtengo gazta aurkeztuko dute, eta bi ordu geroago herri bazkaria egingen dute urtetan ibaian barna egurra garraiatzen ibiltzen Florencio Idoate almadiazainaren izenean. Bazkalondan, herri kirol ikuskizuna eskainiko dute Etxauri eta Berriozarko taldeek. Festa dantzaldiarekin bukatuko da.

→ Uxue Zabaleta

bidean begi

MAITE URKIA



Mundua mundu denetik gizakia plazer eta odoletan nahasia ibili dela dirudi; historiaren orrialde ugariak oker ez badaude behintzat horixe ikus dezakegu pixka bat begiratu gero, eta mundua handia denez eta xoko guztietako gorabeherak arrapaladan iristen zaizkigunez etxeko egongelara kaleko leihoak baino ikusmira zabala goa duen telebisioko leihoak, begiak hango eta hemengo txikizio eta sofrimenduz betetzen zaizkigu tarteka, baina komunikabideak hain lehiatsuak izanik elkarren artean, halako batean aspertu edo egiten dira eta, bat-batean, beste edozein notizia baino askoz garrantzitsuagoak jo dutena eta bihotzak barreraino hunkitu arte egunero-egunero eman ditugutena, Afrikako gerraren bat esate baterako, desa-

gertu egiten da erabat, eta gerra amaitu bada ere, hara-hona ibili den jende guztiarekin zer gertatu den arrastorik ere ez. Guri ere berehala ahazten zaigu eta hala beharko aztoramendurik gabe bizitzekotan, hari eta besteren bat agertzen den arte, orain Kosovo aldean bezala.

Baina oraingo honetan dantzan dabiltzanak ez dira «zibilizatu gabeko beltz horiek» (zenbaitetan arrazismo europarraren kutsuarekin erdi bromatan erdi serio ateratzen zaiguna), oraingoan Europako jendea dabil noraezean, eta han gertatzen ari denaz, beste behin, komunikabideek nahi dutena dakigu, eta ikusi edo entzundako hori besterik ez bada ere, izugarria da.

Izugarria, halaber, hango jendea «babestu eta be-

ren etsaia menderatu nahian» dabilen NATO ahalguztiduna. Zenbat txikizio alde batean zein bestean! Gerra horixe dela esango du bakarren batek, baina harrizkoa da gaurko egunean horretaraino heldu beharra.

Guk ikusi eta entzun besterik ezin egin, edo agian txanponen batzuk eman. Eta komunikabideen mundu honetan hainbeste arazoren berri izatea gizakia-erentzat batere ona izango ez denez, telebisioa kendu edo Gil de Biedma poetak aipatzen duen une soil hau bezalako asko bilatu behar:

«Aunque sea un instante, deseamos descansar. Soñamos con dejarnos.


No sé, pero en cualquier lugar con tal de que la vida deponga sus espinas».

Bera ●

Begiradaren zentzua artearen bidez

Artis Mundi erakundeak arte garaikideko erakusketa zabaldu du

Artis Mundi arte garaikide erakusketa ibiltaria zabaldu du Beran, Francisco Yndurain eta Cederna-Garalur elkarteekin. 17 artisten lanak daude ikusgai, maiatzaren 7a arte.



Hainbat artistaren lanak bildu dira Kultur Etxean.

● JON GOGORTZA

ERABAT GAI DESBERDINAK ERABILIZ, lan zeharo diferentak landu dituzte 17 artista hauek erakusketa honetan paratu dituzten lanetan. Orotara 30 arte lan baino gehiago ikus daitezke maiatzaren 8a bitarte, eta bertzeak bertze, argazkia, egurra, burdina, pintura eskultura eta ordenadore bidezko irudiak landu dituzte.

Lanak zintzilikatu dituzten gehienak EHuko Leioako fakultateko irakasleak dira. Orotara 17 artista biltzen ditu erakusketak: Antonio Atxukarro, Maria Jesus Cueto, Zulema de la Cruz, Gago Eye, Fausto Grossi, Inmaculada

Jimenez, Nieves Larroi, Fernando Mardones, Francismo Martinez, Ana Mujika, Olga Ordoñez, Josue Pena, Antonio Pinto, Miguel Pueyo, Josu Rekalde, Maximiliano Tonelli eta Jose Mari Zarzuelo. Arte lanen artean, koloreztatutako argazkiak, Rodin eskulturgilearen irudiak dituzten betau-

rrekoak, argizarizko lanparak, bolumena duten atea eta bertzelako lan ugari aurki daitezke. Guztiak aski diferentek dira euren artean. Baina badute antzik ere: kolore biziak darabilzkite oro har, eta neurri dagokienez, oro har, edo neurri hagitz txikikoak izaten dira, edo alderan-

tziz, izugarri arte lan handiak. Lan guti daude erdibidekoak, alegia, ohiko artelanetako neurrikoak. Arte erakusketa- ren helburua begiradaren bidez sor daitezkeen efektuak biltzea da. Hortik datorkio *Begiradaren zentzua* izena.

Hitzaldiak, lagungarri

Antolatzaileak jakitun dira jendea ez dagoela ohitua mota honetako artea ikustera. Horretarako, eta arte garaikidea hurbiltzeko asmoarekin, bi hitzaldi antolatu dituzte. Hala, gaur Gure Txokoa Elkartearen Jamotenea egoitzan, arratsaldeko 7etatik aitzinera, Miguel Pueyo iruinsemeak abangoardia osteko artea hizpide izanen du. Hala nahi dutenez, hitzaldia bukatutakoan bisitaldi gidatua egingen dute erakusketan zehar. Bigarren solasaldia heldu den ortziralean izanen da, ordu eta toki berean. Hizlaria, berriz, Maximiliano Tonelli izanen da. Tonelli italiarra da sortzez, eta egun EHuko Leioako campuseko Arte Ederretako fakultateko irakaslea da. Biek ala biek hiruna lan zintzilikatu dituzte Beran ikusgai dagoen erakusketan.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Bortzirietatik Gasherbrumera

Berako Agerra mendi taldeko hainbat kidek udan Gasherbrum-II mendia igotzeko egingen duten ahalegina aztertu du **Ttipi-ttapa**-ko azken zenbakiak, kirolari eskainitako tartean. Zehazki, Luis Mari Pikabea, Patxi Pikabea, Ana Larretxea, Sabino Korta eta Xabier Zubietak osatuko dute Bortzirietako Espedizioa. «Lehendabiziko aldia izanen da bakar-bakarrik gure inguruko mendizalez osatutako talde batek 8.000 metrotik goitiko mendi bat igotzen duena; izan ere, Pakistango Karakorum mendikatean dagoen gailur horrek 8.035 metroko altuera baitu. Hala ere,

lehendik Xabier Erro lesakarra ibilia da mendi horretan». «Bortzirietako talde honentzat ez da izanen goimendiarekin duen lehendabiziko harremana. Pirinio eta Alpeetako mendietan hainbat aldiz ibiliak dira, 1997ko uztailean Perura joan zirenean, eta Huascaran eta Alpamayo mendiak igotzen zuten, biak ere sei mila metrotik goitikoak. Luis Mari Pikabea eta Xabier Zubietak Kilimanjaro ere igotzen zuten 1992an».

Xabier Zubietak azaltzen ditu **Ttipi-ttapa**-n espedizioaren helburuak zeintzuk diren: «Bortzek gailurrera igotzea. Hori lortuko bagenu, Ana Larretxea mendi hau igotzen

duen Euskal Herriko lehen emakumea izanen litzateke». «Espedizioaren aurrekontua zazpi milioi pezeta ingurukoa da. Hori ordaintzeko Savera Group taldearen babesa lortu dute, Ternua-Astore kirol jantzien eta bertze zenbait denda, merkataritza etxe, Nafarroako Gobernuaren eta udalen laguntzarekin batera. Pakistanera, Rawalpindira, hegazkinez ailegatuko dira espediziotako bost kideak. Handik kamioietan joanen dira Skardu herrira. Gero oinez abiatuko dira, hamar-hamabortz eguneko ibilaldian, 5.000 metroan antolatuko duten beheko kanpamentura ailegatu arte».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Bizitzaren zentzua dela-eta

Atzo pegatina fluoreszente batzuk oparitu zizkidaten. Oparia planeten pegatinak ziren: Zure gelaren sabaian jarri eta argia itzali ondotik berez argitzen diren planetak eta, miopea ez bazara behintzat, zure ohetik ikusi ahal ditzakezunak. Nire kasuan diferentea da. Kontua da, ni miopea naizela, eta planeten pegatinekin bi pasadizo xelegekarri zizkidaten gogora. Lehenengoan, horrelako ostiral edo larunbat gau batean, neska batekin ligatu, Aintzane esate baterako, eta alokatua nengoen etxera joan, oheratu eta gauza likits batzuk egin ondoren argia itzali genuen lo egiteko. Minutu bat bera ere ez zen pasatu neskeri, bapatean, entzun niola «Aiba! Ze politak!» esaten zuela. Jakinminez galdetu nion ea zertaz ari zen, eta erantzuna «izarretaz, izartxo haietaz» ari zela izan zen. Harrituta nengoen eta ea gaueko eta benetako izarretaz ari al zen galdetu nionean «ez, ez» eta «sabaian ditzuzun hoietaz ari naiz» esalditxoarekin txundituta utzi ninduen Aintzane. Harrituagoa argia piztu eta ohearen gainean zutiturik sabaia begiratu nuen eta bai! izar txiki-txiki batzuk zeudela lehendabiziko aldiz oharu nintzenean, fluoreszente hoietakoak, sekulan ikusi ez nituenak, aurretik alokatua egondako norbaitek paratutakoak. «Hemendik aurrera Arrano-Begiak deituko zaitut», esan nion Aintzane, eta horrelako txantxa merkeekin argia itzali eta lo seko gelditu ginen. Oo-oo, ze polita! Bainan Denborak aurrera egin zuen, eta nire adimen urrian ere izartxoak lo seko geratu ziren, ahazturik. Geroztik izartxoak beste behin bakarrik ikusi nituen. Mozkortuta oheratu eta betaurrekoak kendu gabe oheratu bainintzen.» Al! Hona hemen bizitzaren bi aldeek parez pare jarriak», pentsatu nuen, «argi fluoreszente madarikatu honek argitzen dituenak: alde batetik bakardade tristeena eta bestetik lagun bat ondoan izatearena. Bi alde hauek bizitzaren puntak dira. Erdian dauden egoera nebulosoetan izartxoak ez dira pizten, ez dira existitzen, beraz...». Lokartu aurretik, seguru nago ondorio batera iritsi nintzela. Ondorio existenzial mozkortu boro bil batera, bainan ez naiz oroitzen zein izan litekeen. Ideiarik ere ez, benetan.

Etxetik lan egiteko eronka

Europako Batasuneko biztanleen %15ek datorren mendean gisa horretan behar egingen badu ere, Nafarroan gutxi dira oraindik telana baliatzen dutenak

Telekomunikazioa eta informatika uztartuz etxetik lan egitera ausartzen diren langileak gero eta gehiago dira Nafarroan. Ikerketak diotenez, Europako Batasuneko biztanleriaren %15tak lan egingen du etxetik edo telezentru batetik heldu den mendean. Motel bada ere, Batasunaren joera hartu du herrialdeak. CEINek (Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarra) eskatuta CIES enpresak egindako ikerketa baten arabera, 242 langile daude Nafarroan. Datuak oso zehatzak ez izan arren, lan merkatua aldatzen doan heinean gero eta nabariagoa den joera da telanarena.

Estatu Batuetan eta Europako Batasuneko herrialde batzuetan -Frantzia eta Erresuma Batua kasu- etxetik edo telezentro batetik lan egitea gero eta ohikoagoa da. Mantsuago bada ere, bide hori egiten hasiak dira Nafarroan ere. Telekomunikazioaren eta informatikaren abantailak ballatuta, lana dezentralizatu egiten da eta beharginak ez du egunero lanera joan beharrik, informazio sareak etxetik lan egiteko aukera ematen baitio.

Etxetik edo telezentro batetik enpresa batendako beharrian ari diren telelangileak ez dira asko herrialdean. Hala ere, eta mendialdean batez ere, gero eta gehiagok egin dute telanaren aldeko apustua. Datu zehatzik izan ez arren, Nafarroan, Cies enpresak CEINentzako egindako ikerketa baten arabera, 242 langile zeuden iragan urtean, eta uste da enpresen %lek duela plantillan telelangileren bat.

«Telana lan eta egoera askotara aplikatu daitekeen behar egiteko modu bat besterik ez da», dio Marta Mañasek, Irurtzungo Biazpe telezentroko zuzendari eta Garalurreko kideak. Langile mota bakarrera mugatzen ez den arren, batez ere zerbitzuen arloan aritzen dira. Dena den, *telelangilea* hitza ongi zehaztu behar da. «Telelangile batek ez du zertan etxetik lan egin. Lan egin dezake etxetik, baina baita beste leku askotatik ere, telelangilea laneko egotzaitik tartea batera behar egiten duena da, eta, noski, horretarako telekomunikazioak eta informatika erabiltzen dituenak», gaineratu du.

Abantailak eta antolaketa berri bat

Etxetik edo telezentro batetik lan egin dutenak diote abantailak oztupoak baino gehiago direla, batez ere denbora nahi bezala antola dezakeelako langileak. «Bizitza kalitate hobea duen inguru batean egon zaitezke, eta, era berean, orduen malgutasuna handia da», dio

Mañasek. Hala ere, tentuz ibili behar dela gogoratu du. «Zure kabuz egindakoaren arabera etekinak lortzen badituzu, stresak jota buka dezakezu, egun osoa lanaren inguruan zaudelako. Batzuetan hamalau ordu egiten dituzu lan, beharra dagoenean aritzen zarela. Ez dago zortzi orduko ordutegirik».

Bestalde, langilearen bakartzeaz ere hitz

egiten da kasuotan. Beharginak ez du kontaktua fisikorik beste langileekin, eta bere giza harremanak eten omen daitezke, depresioak eraginez, besteak beste. Mañasek 1989tik egiten du behar telematikari, eta Nafarroan oraindik horrelakorik gertatzea zaila dela dio. Herrialdean etxetik edo telezentrotik lan egiten omen da, eta taldea ere bai. «Garalurren

Olga
Altsasuen
etxetik egiten
diseinua.
MIBSAIZ

1992tik egiten dugu telana. Batzuk besteengandik urrun bageunden ere, taldearen zentzuari eusten genion; izan ere, komunikatzeko aukera handiagoak dituzu eta informazio trukaketa etengabea da», azpimarratu du. Dena dela, ohiko enpresentzako zaila da lan egiteko modu hori aplikatzea, telanari lan egiturari, antolaketa eta mentalitatean aldaketak dakartzalako. «Arrisku handia da bere kabuz lan egiten duenaren langilearentzako. Enpresarentzako zaila da enpresaren antolakuntza ezberdin bat onartzea. Pentsatu behar dute langileak gorputzez hor egon ez arren, antolakuntzan parte dela eta eginkizun bat duela. Beraz, bertantxe balezko bezala lan egin behar dute berarekin eta ezin dute ahaztu», azaldu du.

Lan egiteko moduan ez ezik, lan motan ere aldaketak dakartza etxetik edo telezentro batetik aritzeak. Mañasen irudiko, telana lan jakin batzuei soilik aplikatu daiteke, oso errepikakorrek diren lanak, eta aldi berean,

langilearen autonomia handia den enpresari. Beraz, etengabe arduradun baten pean ari behar duen batentzako oso zaila litzateke. «Lan horiek helburuak eta baldintzak oso ongi eta argi definituak dituzte. Emaitza bat duten lan unitate osoak dira. Era berean, lana ez da denboraren arabera neuritzen, baizik eta bukatutako lanaren arabera. Normalean telan bidez egindako lan bat kontratatzen denean, enpresa ez da kezkatzen langileak erabiltzen duen denboraz, emaitzaz baizik, lanaren kalitateaz. Beraz, lanaren kontzeptua aldatu egiten da, eta zigorren bat izan dezakezu aurretik jarritako epeak betetzen ez badituzu», azpimarratu du.

Egoera legal zehatzik ez

Etxetik edo telezentro batetik aritzeak behar egiteko modua aldatzen badu ere, ez da modu berean egokitu legedia. Egun, Frantzia eta Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan ez bezala, Espainian ez dago langileentzako legedi jakirik, eta telelangileek autonomo bezala funtzionatzen dute edo bere plantillako langile moduan. Frantzia, beste langileen antzera, segurantzaren sozietate dute, aparteko orduak kobratzen dituzte, eta langileen gainerako eskubideen jabe dira. Era berean, etxetik enpresa batentzako behar aritzen badira, enpresa behartuta dago lan egiteko behar dituen tresneria guztiak paratzea eta lan kontratu bat egitera. Nafarroan Espainiako legedia aplikatzen da eta beraz, ez da horrelakorik langileentzako. Ugarriak dira azpikontratazioak eta bere kabuz lan egiten duten langileak. «Bere kabuz lan egiten dutenen kasuan ez dago deus arautzerik, merkatal kontratua delako. Baina azpikontratazioetan, ezkutuko lanareko joera handia da, dio Biazpe telezentroko arduradunak. Ildo honetan ez dela deus egiten ari kritikatu du Mañasek, eta telanaren kontzeptua bera argi

Telezentroen esperientzia

Irurtzungo Biazpe telezentroa Euskal Herriko bigarrena da, Bizkaiko Gorde-xola herrikoaren ondotik. Bertan lantegientzako azpiegitura informatikoa eta beste hainbat zerbitzu lor daitezke. Alex Sagastibeltza leitzarrik urte bat darama bertan lanean, bekadun bezala. Informatikan lizentziatua, Interneten aplikazioarako programazioak egiten ditu: web orriak, aplikazioak eta efektu bereziak...

Telezentroan duela urtebete abiatu zen Expertice proiektuaren baitan dihardu. Expertice Garalurren eta Animsaren arteko proiektua da eta Interneteko eta teknologia berriei buruzko proiektuak

sortzeko lizentziatu talde bat trebatzea du helburu.

Joan den urriaz geroztik, Nafarroako Gobernuarentzako proiektuak egiten dihardute.

Sagastibeltzak abantailak besterik ez dizkio ikusten bere lanari. «Lana hartu nuenean ikusten nuen zerbaite berria zela. Teknologia berriak ikasteko modu bat eta etxetik gertu dagoela konturatu nintzen gainera». Dena den, teknologia berrien aplikazioak etengabe berritzen ari behar dutela dio. «Hori da desabantaila. Gauza berria izatean hemen ez dago honetan asko dakienik eta zure kabuz ari behar duzu askotan», gaineratu du.



Alex Sagastibeltza, Irurtzungo telezentroko langilea.
● MIKEL SAIZ

ez dagoenez, langileon egoera nahikoa berezia dela askotan. «Telana zure eguneroko lanean informatika eta telekomunikazioak nahastuta erabiltzea da. Garalurren, adibidez, telelangileak 5.000 kilometro koadrotan sakabanatuak gaudelako eta egunero informazioa trukatzeko ari garela. Gainera, Nafarroan egoera nahastuak dira. Normalean, joan-etorriak sahesteko erabiltzen du jendeak lan modu hori. Baina gutxiak uzten dio lanerako autoa erabiltzeari. Laguntza bat da, baina ez du ordezkatzen ohiko lan modua», adierazi du.

→ Irene Arrizurieta

Olga Madina: etxean lan egiten duen diseinatzailea


Olga Madina diseinatzailea da. Duela bi urte eta erdi etxetik lan egitea erabaki zuen, eta ez da damutzen hartutako erabakiaz. Diseinu grafikoa eta erakundearen irudi korporatiboa egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu etxetik bertatik, Altsasutik.

Berak diseinua eta teknologia uztartu ditu bere beharrian, prozesu osoa kontrolatuz. Onartu du erosoagoa dela lan finko batean egotea, baina Garalurren eta Ceinen bidez egindako ikastaro batzuen ondotik lehenengo pausoak nola eman erabaki zuen. «Ezin naiz kexatu. Hasiera-hasieratik lana izan dut. Ez da oso gogorra izan, nire ahoz aho lortutako lana da», dio pozik. Gainera, lanari ez dio alde txarrik ikusten. «Etxean nahi dudana egin dezaket. Denbora nahi dudana moduan bana dezaket. Dena dela, lan asko egiten duzu. Badituzu erantzukizun batzuk, eta egun batzuetan ezin arnasa hartuz ibiltzen zara. Ez dira zortzi ordu baizik eta hamasei. Ez beti, baina bai askotan», gaineratu du.

Ordu asko lanean eman arren, norberarentzako lan egiteak beste pizgarri bat omen du. «Hau dut gustuko eta ez naiz aspertzen. Lana egiten dut enpresa txikiarentzako, elkarteentzako informazio boletinen diseinatzen, artisauntzako etiketak egiten, katalogoak eta Nafarroako Gobernuako departamentu batzuetako kanpainak diseinatzen...».

Araudi zehatzik ez egotean, bere kabuz lan egiten duten langileen araudipean dago. «Ez dakite non kokatu gure lana», kexatu da.

Bakarrrik lan egiteak ez du beldurtzen, proiektu batzuk beste profesional batzuekin egiten baititu: kazetariekin, argazkilariekin... Horretaz landa, baditu proiektu zehatzak ere. Egun, multi-



media proiektu bat du esku artean bi musikagilerekin batera disko konpaktu bat egiten ari dira musika irakaskuntzarako. Baitan orkestra bat duen eta beste hainbat baliabide dituen taldea, hain zuzen.

EZKABA TABERNA
ZORIONAK!

•GOSARIAK-BAZKARIAK•
•AFARIAK•
Ezkaba plazan

BENTXI TABERNA

Zatoz eta gustura jarri
Festa zoriontsuak opa dizkizuegu
EZKABA PLAZA - TXANTREA

YOSELEN KAFETEGIA
Era askotako pintxoak, bokatak eta afariak
Zorionak!!!
Ezkabako plaza - TXANTREA

KORIMENO TABERNA

BOKATA IRAULTZAILEAK JAIA AURRERA ERAMATEKO
Lesaka kalea, 5 TXANTREA
Jai zoriontsuak!

TXANTREKO HERRIKOA

ZURGAI
Jaiak bai borroka ere bai

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Hontza galiziarraren eta zozo bizkaitarraren arteko dema

Norbederaren apologia bezain ohikoa besteen aurkako oldarra zatekeen XVII. mendean, apologia negatiboa dei dezakeguna; hauetakoa dugu Lemosko konteak tajutu zuena, non galziarren eskubideak defendatzeko, bizkaitarren etorki judutarra salatu zuen, kristau zaharren eta odol garbitasunezko garai haietan garrantzi itzeleko gauza zena



PEDRO FERNÁNDEZ DE CASTRO Andrade y Portugal zuen pontekoa Lemosko konteak, eta Madrilen jaio eta hil bazen ere (1576-1622), galziarrak zituen erroak eta galziartzat ematen zuen bere burua. Felipe IV.aren gortean gora egin zuen luzaro, eta Indietako Kontseilua-ren lehendakaria izatera erraz iritsi zen, baina jauregiko jukutiek eta goragura zuten beste aitonen semeen azpizjokoez sorterrira igorri zuten 1618. ean, minduta eta eskergabeki. Hantxe izkiriatu zuen Lemosko konteak *Historia del Búho gallego con las demás aves de España* bederatzirorriko kaler laborra bezain eztena. Literatura, bada, ez zitzaion guztiz arrotz konteari, eta Madrilengoela, Lope de Vega edota Cervantes idazle haundien mezenas ari izan zen -gure Baltasar Etxabek berak Mexikon 1607. ean atera zuen bere *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra-bascongada* liburua eskini zion-. Egile-izenik, lekuri eta datarik gabe inprimatu egin bazen ere, Lemoskoaren idazki laborra eskuizkribu gisaz kurriarazi zen gutxi gehien. Gortean izaniko esperientzia pertsonalak, gorteteaniko eserlekua Galziak XIV-XV. mendeetan galdu izanak eta ordura arte berreskuratzeko eginiko saio guztiak antzuek izateak, eta Galziari, oro har, espainiar literaturan ematen zitzaion mesprezuzko tratamenduak eroran zuten konteak kaler hura idaztera. Argumentua hagitz xumea zaigu, *locus amoenus* idurikatzen duen txipu hostotsu baten gerizpean Espainiako txorien ordezkariak biltzen dira gortetean: zozo bizkaitarra, belatz gorri nafarra, kuku aragoarra, miru kataluniarra, ur-zozo valentziarra, enara murtziarra, pauma andaluziarra eta karnaba portugaldarra, eta hauekin batera ere, batzarneuntza hartako jabeak di-

ren Gaztelako antzara eta Manchako basoiloa. Afera zera zaie, erabaki behar dute, hontza galziarrak dituen merituak eta dohaiak kontutan harturik, eia gauza den biltzar hartan sartzeko ala ez. Gaiaren korapilotsuak aharra sortarazi zuen, eta arranoa beste hegazti guztien gainean epaile ezarriz, zozo bizkaitarrak fiskalaren ardura bere gain hartu zuen hontzaren nahiak gordinki zapuzteko; Juantxo Garibai deituriko zozo bizkaitarrak, beraz, biltzarretan parte hartzeko eskubidea ukatu zion hontzari galziarren espainiaritasuna ukatuz. Azken honen, berriz, bere buruaz egiten duen defentsa, funtsik gabeko bezain trebe dena, zozoari erasoan datza: «vizcaino» hitzaren etimologia maltzurra eginez, hau da, bi aldiz Kain, zera zioen, bizkaitarrak direla Titok garaituriko judutarren ondorengoak, geroago Palestinatik aterata Bizkaiko mendietan, beste inon onartuak ez zirelako, izkutatu ziren berberak. Epaietaren bigarren egunerako zozo bizkaitarrak ez du aurpegia ematen, ahalgeturik nonbait, eta hortaz, arranoak hontzari ematen dio arrazoi berak esandañoketan eta biltzarrean kide sartzeko dituen eskubideak onartuz. Ez zen txori-kaka Lemosko konteak bizkaitarrak oldartzeko erabili zuen argumentua; alde batetik ideologia tubalisten kirbin makala oroitarazten zuen, hau da, Tubalen etorrera onartzeak inplizitoki dakarren Tubalen ondorengo judutartasuna, nahiz Euskal Herria populatu zuten judutar horiek eta horien segida Jesukristo hil zutenekin zer ikusirik ez duten; eta bestetik, Errege Katolikoek penintsulako judutarren kanporatu eta gero, euskaldunen eskutan geratu ziren komunzki

judutar ber haiek betetzen zituzten administrazio zereginak, Quevedok deitu «cántabros tinteros» horien aurka gorroto berriak erakarri zituena espainiarrengandik, izan ere, lanpostu haietan sartzeko odol garbitasuna eta kapare izatea eskatzen bazen ere, inor gutxiri ez zitzaion atzentzen euskaldunak, finean, judutarren toki berean zeudela. Lemoskoak ondu zuen lan tikiari Bizkaitik ateratako erantzuna iritsi zitzaion, *El tordo vizcaino* izenburupean, XVII. mendean isilpeko hiru ediziotan kaleratu zena -hirugarrena 1682. ekoa izanki-, honakoak ere, egile izenik, tokirik eta datarik gabe. Galziarraren lanean dohai literarioak nabarmenak diren bitartean -satira, ironia, irakurketa arina eta dibertigarria-, bizkaitarraren ihardespina, aldiz, guztiz astuna agitzen da, korapilotsua, jasekoa, serioa, eta, oroz gain, luzea, 90 orrialde baititu. Lemosko konteak zozoari ezarri zion izena dela eta, askok uste izan dute erantzuna Garibairena zela, baina testuaren 88. orrialdean 1638.eko Hondarribiko setoa alpagai izan zuen egileak, eta, ezaugarrienez, ordurako hilik zegoen arrasatearra. Testu hau berrargitaratu zen XVIII. mendean, Antonio Valladaresen *Semanario erudito* astekarian hain zuzen ere -Madrilen, 1789. ean-, alabaina hutsez josirik eta maltzurkeria haundiz aldatuak testuekin agertu zen; XIX. mendean Bilboko *Euscalduna* egunkari euskaltzalean atera zen -1868. ez geroz *Jaungoicoa eta foruac* deituko zen hartan berean-; mende honetan, ostera, Andres Mañarikua-ren edizioa dugu eskuragarai, *Polémica sobre Vizcaya en el siglo XVII*, Bilboko La Gran Enciclopedia Vasca-koek 1976. ean karrikaratu zutena.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Garateren atsotitzei

ASTE SANTUAN EMAN nien pasada, batez ere sarrerakoei. Lan ikaragarria, aingeru batek egiteko. Txingurri lan askoren gainetik, hiru alderdi nabarmen ditu liburuak, guztiz estimagarriak, eta orain arte inork egin gabekoak. Aurrenekoa, euskal esanera, espainola bitarteko, hizkuntza unibertsal zaharretako (latina) eta berrietako (ingeleza) zuhaitz adarretan txertatu izana. Bigarrena, atsotitz guziak gairik gai txukun sailkatu izana, edozein gairi buruzkoak biltzeko, eta nahi izanez gero, beste hizkuntzetako sinonimoak begiratzeko, aukerak izugarri erraztuz. Eta hirugarrena, euskal sena galduxe duenaren lagungarri, atsotitz askoren zentzu bihurri edo esanahi gordea azaltzen gogotik salatu izana. Horra euskal esanera zaharren eta zuhurren korpus bikaina, nahi duenak erabili, bere CD-ROM eta guzi. Ez zait asko gustatu, halere, Garatek sarreran esaten duen zenbait gauza: «*Euskal atsotitzek agertzen dituzten gizartea, baserrikoa da, laborariena, erabat euskaldun direnena. Hots, lurgintzatik bizi diren, animaliekin harremanak dituzten, naturalezari, landare eta zuhaitzei lotuak dauden, basoan eta mendian bizi diren joan-etorri eta aburuak. Kalean euskal atsotitz gutti.*» Betiko lelo gurea. Noiz murriztu du horretara ingelesak, espainolak edo latinak, bere esanera jatorren erabilera? Nik dakidala, sekulan ez. Zergatik orduan guk, euskararen muina beti etnologi eta baserri kontutara murriztu behar tristetia? Hizkuntza klasiko guzia da funtsean baserriko (rurala) izana, eta bere troporik ederrrenak tokian tokiko izadiari zor dizkiona; ez dago, beraz, hori euskararen gaitz berezi moduan zertan nabarmendu beharrik. Hiztunaren ezinak asmatzen baititu, endemas

euskararen, hizkuntzaren ezinak. Batere hizkuntz altxorrik eta senik baduen hiztunak, haurrak plastilina bezalaxe biguntzen ditu bere hizketara behar dituen hitz eta esanera guziak, egungoak orain dela bi mila urtekoekin nahastuz, edo ikulukoak bulegoekin, fakultatekoak agrafoekin, mendikoak juzkadukoekin, elizakoak putetxeekin, edo alderantziz, beti ere oharkabe eta dotore txirikordatu. Rotterdameko Erasmok, *Collectio Adagiorum* idatzi eta, lau mila inguru atsotitz horitua, 1517an argitaratu zutenean, ordu arteko erabilera moral hutsa saihestu, eta atsotitzen balio literario ederra erakutsiz, honela definitu zituen: «*filosofia enpiriko zahararen aztarnak, harribitxiak bezala landuak, jakintsuak ezetik herriak ere erabiltzen dituenak.*» Ezin bestela izan. Halare, bostehun urte gerozago, euskal atsotitzetako morala azaltzen saiatzen da Garate liburu sarreran. Ni ez naiz, ordea, esaera batek gorde lezaken egia eredutzat jotzeko bezain ortodoxoa. Gizonaren gogora ezker, deus ez baita tene gelditena. Honatx frogat: (6867) «*Inorekin faltatu gabe behar da hitzegina*», (6884) «*Etzazula hitzegina, ez baduzu nahi hutsegina*». Nola, ordea? Gure gogoa, hizketa, kontrastez sortua baita, eta kontrasteak bizi du. Hitzegitea (edo idaztea) hutsegitea da beti, eta ez du sostengurik inon. Atsotitzetako baliapide literarioak aipatzean, «*singularra pluralaren orde*» diozu. Ez atsotitz hutsetan, hizketa guzian baizik. Jeneralidadea eredu bakarrera biltzekoan «*haurrak ez daki...*» esan orde «*haurrek ez dakite...*» ESANEZ HASTEN DENAK, GALDUA DIZU HIZKETAKO SEN PUSKA. HORIXE BAITA HIZKETARI SEN EDERRA BILATZEA. «*CREAR ES GUITAR*» Otezak esana. Konparaziora: «*Hitzontzi, hutsontzi*», edo «*Zimino gorago, uzkia ageriago*»; *ba ote daki horrenik, gaurko trepalari jendeak?*

Ziria

• Motxorrosolo •

Loturak

AUTOBIAK, MAIZ, URRUNTZEN DUTEN LOTURAK GERTA DAITEZKE. Aurrekoan barne-zatiketa eragin zuen, egun ere emendatu ez dena. Oraingoa bide bertsutik abia daiteke, ez da makala aurrekusten den lehia. Zenbait kontutarako ez da horrelakorik behar, Garazi aldeko jokalariek Hiri Buruzagian erakutsi lege.

Jai giroa gaurtik Txantrean

Hiru egun hauetan ez dago aspertzeko beldurrik prestatu den egitarauarekin

Ezkabako Bizilagunen Elkarteko kideek gaur zortzietan puntuan jaurtiko duten txupinazoarekin hasiko dira ofizialki Txantreako jaiak, denboraldiko lehenetakoak -Sanduzelako ondo-oren- eta ongi merezitako fama dutenak.

Zaila da egitarauan zer edo zer azpimarratzea, baina jai batzordekoek esan dute bihar larunbata, 22:30etan, Auzotegitik egingo den suzieren erakustaldia, Bartzelonako DRAC eta Tabales de la Orgasmica taldeen eskutik, benetan ikusgarria izanen dela. Sarriako talde hori Txantreara iritsiko da kultur truke bati esker, auzoko zantzarren han egon baitziren duela zenbait aste.

Horixe da jai batzordekoen helburua, hain zuzen ere, «diru askorekin eginiko jaiak baino gehiago, herri mugimenduak sortutakoak egitea». Hamabost bat lagun elkartzen dira urte osoan jai hauek ez ezik, Gabonetan, Ihaulerietan, San Joan egunean edo urrian egiten den Gazteriaren Astea prestatzeko, eta bertako kide Xabi Urrutiak esan digu jaiak auzoko talde guztien artean eginak direla dudarik gabe, nahiz eta azken urteotan jende gutxiago dagoen sartuta taldean. «Guk baditugu hainbat ekitaldi egituratuta, eta gero talde guztiei eskatzen dizkiegu proposamenak,



JOXE LACALLE

eta haien ekarpenak onartzen ditugu. Gure lana koordinatzea da gehienbat».

Populazioa zahartzen ari da

Jaiok auzoaren bizitza barruan izan duten garrantzia aipatzeko, nahikoa litza-teke esatea azken hoge urte hauetan berrehundik gora lagun egon direla sartuta taldean. Hala ere, beste garai batzuetako mugimendua ez dagoela onartu du Urrutiak. «Ez da duela hamar urte bezala. Txantre-

an ez da ezer eraiki azken urte hauetan, eta jende gazteak beste toki batzuetara joan behar izan du. Ondorioz, populazioa zahartzen ari da, eta hori sumatzen da».

Jaiak aste honetan izan diren ekitaldiekin hasi dira, baina ofizialki gaur arratsaldean abiatuko dira. Aurrekontua hiru milioi pezeta pasatxo da, eta Udaletik 400.000 pezeta baino ez dute jasotzen. Urterokoa. «Jada aurrekontua egiten dugu diru hori kontuan hartu

gabe -azaldu du Urrutiak. Publizitateari esker edo egitarauak etxe banatzen ditugunean jasotzen dugun diruarekin osatzen ditugu kontuak».

Egitarauaz aparte, aipatu behar da txosnetan biltzen diren taldeek ere antolatzen dituztela kontzertuak eta bestelako ekitaldiak, eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek gaur herri afaria eta bihar kalejira prestatu dituztela.

→ Alberto Barandiaran

egitaraua

Ostirala 30

- 14:30etan:** Bertso bazkaria, Estitxu Arozena eta Xabier Silveirarekin, Eunate Ikastetxean.
- 20:00etan:** Txupinazoa, Rastro Enparantzatik, Ezkaba elkarteko kideek botata.
- 21:45etan:** Entzierroa, Karrikiriren Oinordekoekin.
- 22:30etatik 02:30etara:** Dantzaldia Euskara plazan, Omega taldearekin.

Larunbata 1

- 09:00etan:** Dianak.
- 11:00etan:** Artisauen erakusketa, Irubiden.
- 16:30etan:** Adinekoentzako kafe-kontzertua Irubideko frontoian Omega orkestrarekin.
- 18:00etan:** Kukubiltxo taldea, Auzotegitik.
- 18:30etan:** Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako selekzioen arteko halterofilia txapelketa, Euskara plazan.
- 22:00etan:** Zezensuzkoa..
- 22:00etan:** Bertso afaria, Auzotegin, Jexux Mari Irazu, Anjel M. Peñagarikano eta Nerea Bruñorekin.
- 22:30etan:** Suzieren erakustaldia, Kataluniatik etorritako DRAC eta Tabales de la Orgasmica taldeen eskutik.
- 23:00etan:** Jaialdia, Unai Txokoan, Nahi ta Nahiez eta Sparto taldeekin.

ZAZPA
LIBURUENDA + OKIDENDA +
GOMINOLADENDA + ... ES.
Jokgi Pasa!!
Miravalles karrika-9. TX
TFNKA - 148407

La Habana Taberna Haizearen plaza, 1. Txantrea.
Astelehenerdik igandera.
Ordutegi jarraitua, 13:00etatik 24:00etara.
Eskara minimoa 1.000 pta.
Iruña: 285 pta.
Hiri-ingurua: 310 pta.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
9 4 8 1 3 2 3 2 5

AKELARRE
Kontzertuak, bilarra, futbolina
Festa zoriontsuak opa dizkizuegu
Lesaka, 5. - Tel.: 948 13 42 05

ARITZA
AUTO-ESKOLA
Lesaka, 7 - Tf.: 948 12 35 83 - Txantrea

HARPEA TABERNA
Hamaiketakoak, bazkariak eta afariak.
Harriurdineta, 2-3 TXANTREA
Tel.: 948 14 50 30



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Inaugurazioak

Azken hilabeteotako martxa ikusita, inauguratu beharreko guztiak inauguratu direlakoan nago. Izan ere, UPNkoak aspaldian amaitu zein oraindik bukatu gabeko obrak jo eta ke inauguratzen aritu dira (aurre)kanpainan. Ezkarotzekoak ere horixe egin zuen 1991ko hauteskunde kanpainian. Garai hartan Nafarroan zehar egindako obra handi eta txikiak *bedeinkapena* ematen ibili zen eta, ibilaldiari amaiera emateko asmoz, Iruñeko Saihesbidea zabaldu nahi izan zuen. Teknikoek, ordea, obra lanak bukatu gabe zeudela erran zuten baina, horrelakoetan gertatzen den bezala, inaugurazioarekin tematu zen politikoak bereari eutsi eta xedea, hots, argazkia lortu zuen. Ondorengo asteetan batzuk hil ziren bukatu gabeko errepidean baina, tira, horiek ez dira politiko inaugurazale bat kezkatu beharreko arazoak.

Auto-gidariok gure diputazioburu txit argiari -harrigarria, bai, baina tratamendu horixe dagokio-zuhurtasun handiagoa eskatu beharko genioke, alegia, ez dezala bukatu gabeko errepiderik inauguratu. Lizarrako Saihesbidean egin nahi omen duen bezala. Eta horrek sor lezakeen kalte politikoaren ordainetan alternatibaren bat ere emanen nioke. Esate baterako, oraindik inauguratu gabe dagoen Foruen Monumentua inauguratu dezala.

Ekitaldi ederra egin lezake edozein aitzakia asmatuta, esaterako, Lizarra-Garazikoek Nafarroaren etorkizuna arriskuan jarri dutenez, oroitgarria inauguratu behar dela nafarron borondatea zein den adierazteko. Argazkia azken asteetako bera litzateke. Corellarra erdian, Eguren eta Ansuategi aldamenetan eta atzean tipo luzea, horrelakoetan argazkian ateratzeko ahalegin guztiak egin ohi dituen.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Iruñea: Color Humano taldeak bihar kontzertua eskainiko du Gaztetxean, 21:00etan.
- Barañain: David Johnston biolontxelo jole britainiarrak Donejakue Bidean zehar egindako bidala baten alegiazko eta irudizko doinuak eskainiko ditu datorren ostegunean, 20:00etan, Kultur Etxean.
- Garralda: Seihots taldeak gaur kontzertua eskainiko du Errotaberrin.
- Iruñea: Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarre antzokian. Taldeak Milhaud eta Ginasteraren lanak interpretatuko ditu, besteak beste.

ERAKUSKETAK

- Zizur Nagusia: Maiatzaren 9ra arte Iñigo Zubikoa iruindarraren lanak ikus daitezke kultur etxean.
- Lizarra: Maiatzaren 16ra arte ikusgai izanen dira Gustavo de Maeztu museoan Lizarra inguruko sei margolarik egindako lanak. Erakusketak Sei begirada aldi berean izenburua du.

BESTELAKOAK

- Iruñea: Urtxintza Aisialdiko Hezitzaileen Eskolak aisialdian ingurugiroa lantzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa maiatzaren 14ean hasiko da eta hilaren 29ra arte irauten du. Ostiral arratsaldean hasi, eta larunbat goizean eta arratsaldean egingen da, elkar-teak duen egoitzan: Mercedes 18, 1 esk. Informazio gehiago edo izena eman nahi izanez gero 948-211478 telefonora deitu behar da.
- Erriberri: Fotoberri elkarteak V. Argazki Rallya antolatu du etzi zortzirako. Parte hartzaile bakoitzari 36 diapositibako karreteia emanen zaio Erribe-

rriko ohiturak, monumentuak, eguneroko bizitza eta horrelakoak islatzeko. Orotara hamabi proba egin behar-ko ditu. Lehiaketa bukatzen denean otordua izanen dute parte hartzaileek. Informazio gehiago Erriberriko udaletxera jo behar du.

- Lesaka: Bihar Gazte Eguna delata eta, bertsotan ariko dira Unai Iturriaga eta Jon Maia.

► Iruñea: Alde Zaharra auzo elkar-teak Tuteran bihar zortzi ospatuko den V. Barazki Jardunaldietara bisitaldia antolatu du. Labrit frontoetik aterako da taldea, eta El Bocalen hamaiketako egingen du. Ondoren, Tuteran barazki, ardo eta zainuri dastaketa egingen da. Arratsaldean Barazkiaren Festa izanen da. Taldea 20:30etan itzuliko da

Iruñera. Izena eman nahi duenak datorren osteguna baino lehen egin behar du, elkar-tearen egoitzan. Aldapa kalea 5, behea.

► Iruñea: AEK-k Iruñezar euskaltegi berriaren egoitza inauguratuko du gaur 11:30etan. Iluntzean, 20:00etatik aurrera, inaugurazio festa izanen da. Errekoletak kaleko 16. zenbakian.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¡Non me fan xusticia, Señor!

Ez dautate justiziarik egiten, Jauna!